



2022KO ARRATEKO JAIETAKO TXOSNAK

2022ko Arrateko jaietan txosnak jartzeko interesa duen pertsona edo erakunde orok egin beharko du eskaera.

Txosnak Arrateko zelaian jarriko dira.

Eskaera egiteko epea 2022ko ekainaren 22tik uztailaren 5era (biak barne) izango da.

Eskaera egiteko bideak:

Pertsona juridikoak, erakundeak, elkarteak eta haien ordezkari diren pertsonak:

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/tramiteak-zerbitzuak/zerbitzuak/arrateko-jaietan-txosnak-jartzeko-eskaera>.

Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Pertsona fisikoak eta haien ordezkari diren pertsonak:

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/tramiteak-zerbitzuak/zerbitzuak/arrateko-jaietan-txosnak-jartzeko-eskaera>.

Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

- **Presentzialki**, PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa, (Udaletxea, beheko solairua, Untzaga plaza 1).
Ordutegia:
 - Astelehenetik asteazkenara: goizez 8:30-14:00. Arratsaldez: 15:00-19:00.
 - Ostegun eta ostiraletan: 8:30-14:30.

Oharra: Uztailaren 1etik irailaren 30era: goizez bakarrik, 8:30-13:30.

Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke PEGORAn. Hitzordua nola eskatu:

- Udal webgunearen bitartez: <https://hitzorduak.eibar.eus/pegora/eu>
- Telefonoz: 940 70 84 00 / 010.

Eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskatzailearen NAN, IFZ edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu beharko.
- Elikagaien manipulatzaile karneta.

COVID-19k sortutako pandemiaren egoera dela eta, Arrateko jaiak eta txosnen kokapena eta neurriak okupazioaren unean indarrean izango diren neurrien mende egongo dira.



Txosnak jartzeko alderdiak adosteko bilera udaletxean egingo da, okupazioaren aurreko egunetan. Bileraren eguna, lekua eta ordua aldez aurretik argitaratuko dira udalaren webgunean (www.eibar.eus).

Txosnak jartzeko baimena emateko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Jarriko den txosnaren segurtasun-ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguru.

Dokumentazio hau txosna jarri ondoren aurkeztu beharko da, eta, beranduenez, okupazio-baimena hasi baino 2 egun lehenago.

Dokumentazio hau aurkezteko bideak:

Pertsona juridikoak, erakundeak, elkarteak eta haien ordezkari diren pertsonak:

- **Elektronikoki**, udal webguneko DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA tramitetik: <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/tramiteak-zerbitzuak/bestelakoak/dokumentazioa-aurkeztea>. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Pertsona fisikoak eta haien ordezkari diren pertsonak:

- **Elektronikoki**, udal webguneko DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA tramitetik: <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/tramiteak-zerbitzuak/bestelakoak/dokumentazioa-aurkeztea>. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.
- **Presentzialki**, PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa, (Udaletxea, beheko solairua, Untzaga plaza 1).

Eibar, 2022ko ekainaren 22an.

ZERBITZU SAILEKO ARDURADUNA